



GARESKO

EUSKARAREN DIAGNOSIA
2022



AURKIBIDEA

1.- SARRERA	03
2.- PROZESUA	05
3.- DIAGNOSIA. Nondik gatoz?	07
3.1. Zenbat gara eta nolakoak gara Garesko Udalean?	07
3.2. Zein doinu dauka gure ahotsak?	09
3.3. Zein da herritarren iritzia?	17
3.4. Indarguneak eta hobetzekoak	21
BIBLIOGRAFIA	22

1. SARRERA

Garesko Udalak Ahize-AEKri gonbidapena luzatu zion hausnarketa prozesu baten bitartez 2023-2027 udalerriko plan estrategikoa diseinatzeko, egungo egoeraren ebaluazioa osatuz eta plangintzaldi berrirako lan ildo nagusien diseinurako proposamena egiteko.

Egitasmo honen helburua izan da:

GARESen EUSKARAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA OSATZEA ETA 2023-2027 PLANGINTZALDIKO EUSKARA PLANA DISEINATZEA.

Garesko Udalak 2023-2027 bitarteko Euskara Planaren erronka nagusiak irudiztatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesu bat sustatu du. Aipatu prozesuak egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak jarri ditu.

Partaidetza izan du oinarri eta bere egitekoak izan dira:

- **Egungo egoera ezagutzea:** Euskararen erabilera neurtzeko kale-erabilera neurketa diseinatu eta egin da; udalerriko, eskualdeko eta herrialdeko datu soziolinguistikoak aztertu eta landu dira; prozesu parte-hartzaile baten bitartez udalerriko eragile eta herritarren iritzia eta ekarpenak jaso dira.
- **Ibilbidea aztertuta, gako eta palanka nagusiak identifikatzea:** Garesen, egun, euskararen normalizazioa bultzatzeko egin den bidea ezagututa; egitasmoak, jarduerak, dinamikak, antolakuntzak...lotura eta harreman zuzena edo zeharkakoa duen guztia identifikatu da. Indarguneak eta ahuleziak ezagutu eta aitzinera begirako palankak identifikatu dira.

- Jasotako informazio eta ondorioetatik abiatuta, **etorkizuneko lerro nagusiak definitzeko hausnarketa prozesua garatzea**: Hausnarketa hori udaleko ordezkari tekniko eta politikoekin, diziplina eta arlo ezberdinetako herriko eragileekin eta parte hartu nahi duen herritarrekin batera egin da.

Proiektu honek, erreferentzia gisa, kontuan izan du Udal politika eta jarduera arautzen duen Lege markoa:

- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa.
- Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko13/1982 Lege Organikoa.

Garesko Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza.

2. PROZESUA

Lanerako hiru esparru egon da:

- Garesko Udal barruko eremua (udal ordezkari politikoak eta teknikoak)
- Garesko udalerriko eragileak (elkarte eta taldetako ordezkariak)
- Herritarrak oro har

Ahizeko-AEK-ko aholkulariak arduratu dira prozesua dinamizatzeaz eta hortik eratorritako lan-plangintza garatzeaz, betiere, Garesko Udaleko ordezkari politiko eta teknikoekin koordinatuta.

Orain arte egindako ibilbidea aztertzeko 4 informazio iturri izan ditugu eta horietatik jasotakoa aztertu eta ondorioak batu ditugu, Garesko euskaren diagnostikoa osatuz:

1. Kale-erabileraren neurketa: Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutelarik, aunitzetan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen lagundu digu modu zuzen eta objektibo batean. Kale-erabileraren datua funtsezkoa izan da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatzeko.

Proposamen honetan Garesko euskararen plan estrategikoa diseinatzeari begira, garrantzitsua iruditu zaigu kale-erabilera zein den ezagutzea hemendik aintzin plangintzaldi bakoitzaren amaieran, karrikan dagoen errealitatea ezagutuz eraginkortasunez erantzutea errazagoa izanen delakoan.

Metodologiari dagokionez, behaketa zuzena izan da, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jaso dute, deus ez galdetu gabe.

Hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute, datu objektiboagoak lortuz. Landa-lana gauzatzeko ibilbideak identifikatu dira aitzinetik, kale eta ordutegi jendetsuenak lehenetsi dira, ahalik eta behaketa kopuru handiena jasotzeko.

Neurketa honetan erabilera-datuak aplikazio informatiko baten bidez jaso dira eta hiru aldagaik euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan da: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen adin-osaketa.

2. Datu soziolinguistikoaren azterketa: hainbat datu aztertu dira kale-erabilera eta galdetegiaren informazioa osatzeko; bertzeak bertze, erroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiaren matrikulazio datuak, inkesta soziolinguistikoaren datuak...

3. Datu kualitatiboaren ustiapena: Hirugarren informazio iturria, hainbat eragile (elkarte, dendari-tabernari, ikastetxe, euskaltegi, kirol talde...) eta herritarrei egindako galdetegitik jaso da. Arlo desberdinetan lanean dabilen jendearen ikuspegia eta ekarpenek berebiziko garrantzia izan dute informazio bilketarako. Hausnarketa eta iritzi kualitatiboak eta subjektiboak izanik ere, nahitaezkoak izan dira diagnostikoa osatzeko.


4. Parte-hartzeko espazioak: Udaleko zein udalerriko esparru desberdinetako kide estrategikoekin lan-mahaiak antolatu dira, ekarpen eta balorazio zehatzak jasotzeko. Lehenena, diagnostikoa osatzeko, 2022ko urriaren 2an egin da, eta bigarrena hilabete bat beranduago, azaroaren 23an, plan estrategikoaren zirriborroa alderatzeko, hain zuzen ere. Halaber, eragile aktiboak identifikatzeko lagungarri izan dira gune hauek.

Udal erabilera planaren diagnosiari dagokionez, bil galdetegi bildu dira 1.Garesko Udaleko hainbat langileek osatutakoa eta 2. Euskara zerbitzuak osatutako galdetegia. Era berean, lan-mahaietan ordezkari politikoek eta teknikoek ere parte hartu dute.

3. DIAGNOSIA. Nondik gatoz?


3.1. Zenbat gara eta nolako gara Garesko udalean?

Biztanleria datuen bilakaera (2001-2020) (Iturria: Nastat)




2020ko biztanleria datuak adina eta sexuaren arabera (Iturria: Nastat)


emakumezkoa



gizonezkoa



Biztanleria datuen bilakaera jatorriaren arabera (Iturria: Nastat)



Gares Nafarroa Garaia lurraldean kokatuta dagoen udalerrria da, Iruñeko merindadean eta Izarbeibar Novenera eskualdean dago. Herri ertaina da (39,70 km²). Azken hogei urteetan biztanleria igo da, eta egun, 2920 biztanle inguru ditu. Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira, 82 gizon gehiago zegoen 2021ean jasotako datuen arabera. Adinari dagokionez, 40-60 urte bitarteko gizonak gehiago dira, adin tarte bereko emakumeak baino. Adinean aitzinera egin ahala gizonezkoen kopurua gehiago jausten da emakumezkoekin alderatuta.

Esanguratsua da atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak goiti egin duela nabarmen 2001etik hona, alegia, 2021ean garestarren % 16,4 atzerrian jaiotakoa da, duela 20 urte % 7,9 zelarik. Nafarroako datuekin alderatuta arrunt parekatua dago, 2020an (N)astatek jasotako datuen baitan Nafarroako % 16,12 atzerrian sortutakoa da.

3.2. Zein doinu dauka gure ahotsak?

Ez da erraza izan Garesko egoera soziolinguistikaren berri ematen duen daturik harrapatzea, izan ere, une honetan zailtasunak daude 5000 biztanle baino guttiagoko herrietako datuak eskuratzeko. Bertzeak bertze, "2016ko IV inkesta soziolinguistikoa" eta "azterketa soziolinguistikoa 2018" txostenetan ematen diren datuak eremu mistoaren ingurukoak dira.

Izarbeibar/Novenera: Eskualde mailako datuak dira, baina ez dute erabat Garesko errealitatea islatzen. Noveneran dagoen euskararen erabileraren datuek ez dute Gareskoarekin zerikusi handirik, eta horrek, datuen desitxuratzeta edota aldatzea dakar.

Ulertzen dugu Iruñerriako eta Nafarroako datu mistoko datuak direla Garesko erabileraren datuetara gehien hurbiltzen direnak.

Txosten honetara aipatutako datu guziak ekarri nahi izan ditugu.

Izarbeibar/Novenera:

2018an Nafarroako estatistika erakundeak (Nastat) Izarbeibar/Novenera eskualdean egindako inkesta soziala eta bizi-baldintzen inguruan jasotako datuen arabera:

- 15 urtetik goitiko pertsonak, haurtzaroko lehen hizkuntzaren (3 urtera arte) eta etxean gehien mintzatzen den hizkuntzaren arabera. Aldagai soziodemografikoen araberako sailkapena:

Izarbeibar - Novenera	Osotara	LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN			
		Euskera	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Bertze hizkuntza batzuk
Biztanleria	10.604	:	9.612	:	896
Ehunekotan	100,0	:	90,6	:	8,4

Izarbeibar - Novenera	Osotara	ETXEAN GEHIEN MINTZATZEN DEN HIZKUNTZA
--------------------------	---------	--

		Euskera	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Bertze hizkuntza batzuk
Biztanleria	10.604	:	10.308	:	:
Ehunekotan	100,0	:	97,2	:	:

- 15 urtetik goitiko pertsonak, euskararen ezagutzaren arabera sailkatuta, aldagai soziodemografikoen arabera:

Izarbeibar -Novenera	Osotara	ULERTZEN DUT...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	634	490	571	4.198	4.712
Ehunekotan	100,0	6,0	4,6	5,4	39,6	44,4

Izarbeibar -Novenera	Osotara	MINTZATZEN NAIZ...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	589	:	653	2.732	6.434
Ehunekotan	100,0	5,6	:	6,2	25,8	60,7


Izarbeibar -Novenera	Osotara	IRAKURTZEN DUT...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	534	432	516	1.233	7.889
Ehunekotan	100,0	5,0	4,1	4,9	11,6	74,4

Izarbeibar -Novenera	Osotara	IDAZTEN DUT...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	528	362	404	1.197	8.113
Ehunekotan	100,0	5,0	3,4	3,8	11,3	76,5


Euskara mintzatu, idatzi, irakurri edo ulertu 'ongi', 'nahiko ongi' edo 'zerbait'	
Biztanleria	1.720
Ehunekotan	16,2

Eremu mistoa


Euskararen ezagutza datuak. Garesko errealitateari gehiago hurbiltzen dira. Iturria: 2016ko IV inkesta soziolinguistikoa. Emaitzak ehunekotan jasoak.

2016**Iruñerriko datuak.**

Euskararen ezagutza datuak. Garesko errealitateari gehiago hurbiltzen dira. Iturria: 2018ko Nafarroako datu soziolinguistikoa. Emaitzak ehunekotan jasoak.


2018

Kale neurketan jasotako datu batzuk:



2021ean Klusterrak egindako Kale Neurketen emaitzen arabera Iruñerriko eskualdean euskararen erabilera % 3,1eko izan zen, Garesen, aldiz, % 4,3koa. Bertako gune soziolinguistikoaren arabera, espero litekeena baino datu handiagoa erdietsi du euskararen erabilerak Garesen.


Hiztun kopuruari dagokionez, bertze horrenbertze erran liteke. 2022an erregistratutako solaskideen % 4,3 izan baitira euskaraz ari zirenak, eta % 2,4 nahasian ari zirenak. Hau da, euskara presente egon da hiztunen % 6,7n.



Euskaraz ari ziren hiztunen % 63,4 emakumeak izan dira, eta % 36,6 gizonak. Bi generoen arteko euskararen erabileraren aldea ia hogeita zazpi puntukoa da (26,8).

Elkarrizketa guziak kontuan hartuz gero, emakumezko solaskideak izan dira euskaraz gehien aritu direnak. Kalean solasean ari ziren emakumeen % 2,7 ari ziren euskaraz, eta gizonen % 1,6.

Hizkuntzaren erabilera, haurren presentziaren arabera




Haurrak elkarrizketaren parte direlarik euskararen erabilera nabarmen egiten du goiti. Euskara hutsezko elkarrizketetan bortz puntuko aldea dago, eta gaztelaniarekin nahasian solas egiten dutenen kopurua kontuan hartuz gero, 6,3 puntukoa da.

Eskolaren datuak

Garesko D ereduko eskolen matrikulazio datuak azken zortzi urte hauetan gorazko joera izan du, nahiz eta 2020 aparteko fenomeno eman, halere horrek ez du hondar urteetako matrikula datuetan eragina izan eta 2022an ikasleen % 82ak D ereduan egin du matrikula.


Gares	2014	2015	216	2017	2018	2019	2020	2021	2022
% D	66 %	65 %	47 %	66,6 %	71 %	71 %	48 %	84 %	82 %
% A	16 %	23 %	35 %	12,8 %	23,8 %	14,29 %	25 %	16 %	15,38 %
% G	18,4 %	20 %	17,6 %	20 %	4,7 %	14 %	27,27 %	0 %	2,56 %

Haur eskolaren datuak




Hondar zazpi urte hauetan oro har haur eskolan eman diren matrikula datuak euskaraz gehiago izan dira gaztelaniaz baino. Aurtengo datuen arabera haur eskolako haurren % 73,5a euskaraz ari da.

Tortotxiki datuak



Tortotxiki Fundazioa euskararen alde lan egiteko helburuarekin sortu zen, helburu hori lortzeko kultur eta kirol jarduerak antolatzen ditu. Egun jaitsiera handia izan du, ulertzen dut lehen ez zegoela haurrendako jarduerak antolatzen zituzten bertze erakunderik, baina egun konpetentzia igan egin da eta honek eragin handia izan du Tortotxikik antolatzen dituen euskarazko jardueren izen-ematean.

Euskalduntzea (AEK) Garesko ikasle kopuruen datuak




Garesen bertan eskaintzen diren euskara eskolen matrikulazio datuei (AEK) erreparatuz, 2012-2013tik 2021-2022 ikastertera ikasle kopurua jaitsi egin da. Hainbat faktore izanen dira egoeraren arrazoia argitzeko, eta hausnarketa egin bada ere, ez da arrazoi zehatzik edo argirik aurkitu.


Egun lau talde badago bertan: A1, A2, B1 eta B1-B2 talde heterogeneoa.

3.4. Zein da herritarren iritzia?¹

Zure ustez, zein da lehentasuneko arloa euskararen erabilera sustatzeko?




¿Cuál crees que es el ámbito prioritario para la promoción del uso del euskera?




¹ Galdetegen emaitza aipagarrienak txertaturik: eranskina 1 eta Galdetegia bere osotasunean: eranskina 2.


Zure ustez zein esparrutan eragin behar da lehentasunez?




¿En que es el ámbito consideras que se debe incidir prioritariamente?



Zure ustez, zer egin dezakete Udalak eta Garesen egoitza duten bi mankomunitateek euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko?



¿Qué crees que pueden hacer el Ayuntamiento y las dos mancomunidades con sede en Puente la Reina/Gares para aumentar el conocimiento y uso del euskera?



2022ko irailaren 19tik urriaren 9a artio galdetegia zabaldu zen herritarren artean kanal desberdinak erabilita: webgunea, Whatsapp taldeak, sare sozialak, e-posta... Herritarren iritzia jaso nahi izan zen, bai Euskara zerbitzuak eskaintzen duen plangintzaren inguruan balorazioa egiteko, iritzia emateko eta baita aurrera begira egin nahi izan dituzten proposamenak jasotzeko ere.

Bi galdetegi hedatu ziren bata euskaraz eta bertzea gaztelaniaz. Osotara 39 lagunek egin zuten galdetegia, 22k euskaraz eta 17k gaztelaniaz. Eta bistan gelditu zen beraien arteko iritzia eta balorazioa ez zuela bat egiten, oro har, gaztelaniaz betetakoen artean kritikoagoan izan baitziren euskarazkoa bete zuenak baino.

Euskaraz galdetegia egin zuten herritarren ustez, eta grafikoetan ikusten ahal denez, euskararen sustapena egiteko lehentasunezko esparrua gazteak dira da, familia eta haurrak jarraian. Gaztelaniaz jasotako artean berriz, lehentasuna hurrei ematen diete, familia eta hurrei ondotik. Halere, hiru esparru horiek izan dira bietan nagusi. Biak aintzat hartuta gazteek izenen lukete lehentasuna eta familia eta haurrak ondotik.

Garesko datu soziolinguistikoari kasu eginez eta Garesko gazteria eta haurrak euskaldunak heldu direla ikusirik argi berresten ahal da gazteen aisialdi eta familia esparruan eragin behar dela.

Bertzeak bertze, honatx jasotako iritzi batzuk::

- “Las familias que queremos que vayan nuestros hijos ya van, independientemente de tertulias cafés o sensibilización. Se necesitan barneteguis, y campamentos y más actividades extraescolares en euskera.”
- “Familien artean euskaltegitik pasatako guraso aunitz daude. Haurrentzat lehenengo eredua dira. Euskara erabiliko balute eskola ez zen izango euskararekiko erreferente bakarra.”
- “Me preocupa la pequeños "guetos" que se crean en el cole como consecuencia de la elección de modelo lingüístico. Considero que este es un tema prioritario de intervención y que no sólo debe quedarse dentro del centro educativo.”
- “Considero que la integración es más importante que el modelo lingüístico elegido y que las gelas deberían representar la diversidad que hay en la sociedad. De esta forma, desde la integración quizá en un futuro la lengua vincular pueda ser el euskera en las calles.”
- “No hay costumbre de que los alumnos hablen en euskera entre ellos.”
- “Considero que es importante que desde el Ayuntamiento se organicen colonias diurnas, campamentos en euskera...”
- “D eredua oso ona da, baina ere pentsatu eta lan egin behar dugu A ereduari daudentzat, hauek ere, euskara ikasi eta landu egiten dute, hauek ez ahaztu mesedez.”

- "Euskara areagotzeko urtean zehar programazio zorrotza eta epeka, moztu gabe egin beharko litzateke."
- "Patioan, banatuta egon beharko litzateke D eredukoan ta A eredukoak. D eredukoak euskara gehiago erabiltzeko."
- "Udalaren barruan badugu lan handia egiteko baina garrantzitsua ez da paperak baizik eta jarduerak, erabilera..."
- "Gazteekin asmatzea zaila da."
- "Udalaren aurrekontua hizkuntza politikarako handitu"
- "batez ere jendea hitz egiten saiatzen dela"
- "Liburutegia euskeraz areagotu"

3.5. Indarguneak eta hobetzekoak

Indarguneak/Aukerak	Hobetzekoak /Mehatxuak
<p>Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaldun kopuru adierazgarria euskararen eragiteko. • Guraso euskaldun kopurua goiti doa. • Euskararen ezagutza haurren artean handitzen ari da. <p>Erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tokiko aldizkarien bidez zabaltzeko aukera. • Merkataritza euskaraz; euskararaz erosteko aukera. • Garesko administrazioan euskaraz egiteko aukera. • Euskara agerian dago; karteletan, karrika izenetan... • Euskararen erabilera handitu da; elkarrizketetan, saltokietan... Familia transmisioak goranzko joera du. <p>Motibazioa/sentsibilizazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez dago euskararen kontrako jarrera txarrik. • Euskararekiko jarrera aldaketa ona. Nahiz eta euskara ez jakin, agurrak euskaraz entzuten dira karriketan. • Familiek D ereduak aukeratzen dute. <p>Euskararen espazioak/euskarazko eskaintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aisialdirako jarduerak euskaraz (Tortotxiki, musika eskola...) • Azpiegiturak eta baliabideak: AEK, Euskara Zerbitzua, Mintzataldeak, Udala, eskola, haur eskola... 	<p>Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskararekiko ezagutza eta erraztasun ttipiagoa. • Dendetan ez dakite euskaraz. • Etorri berrien ezagutza zenbakietan eragiten du. <p>Erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz ikasi eta gero euskararekiko harremana galdu dute gazteek, maila galdu dute eta orain zaila egiten zaie mintzatzea. • Gu geu (euskaldunok): dakigunok ahal dugularik ez dugu erabiltzen. • Euskaldunen artean ez da bereizgarrikerik erabiltzen identifikatzeko; saltokien kasuan. • Kuadrilla aunitz mistoak dira eta euskaraz aritzeko zailtasunak daude. <p>Motibazioa/sentsibilizazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Borrokak indarra galdu du. • Gazteen artean euskararen ikuspegi akademizista dago. • Gehiegitan errebindikazioekin lotzen da (sozialak, ekonomikoak, politikoak) <p>Euskararen espazioak/euskarazko eskaintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arnasgune falta; euskaraz aritzeko eta partekatzeko espazioak. • Euskara eragileen arteko koordinazio falta. • Gaztelerazko eduki kulturalak. • Aisialdirat ez dakigu nola ailegatu. • Euskarazko estimuluak falta dira; komunikabideak, filmak, irakurketak...

BIBLIOGRAFIA

2016ko IV inkesta soziolinguistikoa: <https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-soziolinguistikoak/inkesta-soziolinguistikoa>

Azterketa soziolinguistikoa 2018:

file:///tmp/mozilla_aek0/azterketa_soziolinguistikoa_2018-1.pdf

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa 2021, Euskal Herria:

<https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>